

EMOZIONALKI ADIMENTSUA DEN GIZARTE BATERANTZ AURRERA

EGITEN

Esperientzia eta Ezaqupenak Partekatzeko Konpromisoa

Jose Ramon Guridi

*Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza eta Jakintzaren Gizartea
Departamentuko Foru Diputatua.*

Maiatza 2009

AURKIBIDEA

• <i>Hitzaurrea</i>	2 o.
• <i>Daniel Golemanen galdera</i>	3 o.
• <i>Bestelako motiboak</i>	4 o.
• <i>Koherentzia</i>	5 o.
• <i>Adimen Emozionala</i>	7 o.
• <i>Prozesua</i>	9 o.
• <i>Ezaugarria</i>	10 o.
○ <i>Haurdunaldia</i>	12 o.
○ <i>Hezkuntza Sistema</i>	13 o.
○ <i>Familiaren esparrua</i>	14 o.
○ <i>Esparru sozio-komunitarioa</i>	16 o.
○ <i>Erakunde-enpresa esparrua</i>	16 o.
• <i>Emaitzak</i>	17 o.
• <i>Lorpenak</i>	21 o.
• <i>Giltzak eta ikasitako lezioak</i>	21 o.
• <i>Konpromisoak gerora begira</i>	25 o.
• <i>Esperientziak eta ezagupenak partekatzea</i>	26 o.
• <i>Esker onak</i>	27 o.

HITZAURREA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza eta Jakintzaren Gizartea Departamentuak 2004az geroztik gidatutako ikasketa emozional eta sozialaren bultzada eta sustapenerako prozesuan sarrien errepikatzen diguten galdera honako hau izaten da: zergatik eta zertarako inplikitzen da Gipuzkoako Aldundia bezalako erakunde bat heziketa emozionalean? Harrigarria da esparru berri batera (hezkuntza, familia, soziokomunitarioa, erakunde alorra, enpresa...) hurbiltzen garen bakoitzean galdera hori errepikatzea.

Legegintzaldia aldaketarekin batera, 2003ko amaieran, Gipuzkoako Aldundiak bere helburu handietako baten moduan planteatu zuen Gipuzkoa berrikuntza lurralde bihurtzea egungo Jakintzaren Gizartearen barruan, haren ezaugarri bat pertsonen protagonismo gero eta handiagoa baita: jakintza pertsonengan dago, eta pertsonen arteko elkarreraginaren ondorioz gertatzen da berrikuntza. Eta pertsoez ari garenez, esan beharra dago azken urteotan aurrerapen handiak izan direla burmuinaren, neurozientzien eta psikologiaren ezagutzari dagokionez, teknologia berriei eta zorrotasun zientifiko handiko azterketa eta ikerketei esker; azken hauek garatu dituzte, besteak beste, Antonio Damasio-k, Salovey-k, Mayer-ek eta Howard Gardner-ek, eta erabakigarriak izan dira halaber Mario Alonso Puig bezalako kirurgilariak eta hedapen sozialean egindako lan handia, batez ere Daniel Goleman protagonista izan duena.

Gaur gauza jakina da zer gertatzen den eta burmuinaren zer partetan gertatzen den, fisikoki, prozesu neurodegeneratiboak garatzen direnean, hala nola parkinsona eta alzheimerra, edo inpaktu emozional jakin batzuen aurrean, nortasunaren arabera.

Era berean, gaur egun gauza jakina da burmuin arrazionala nola oinarritzen den burmuin emozionalean, arrazoibidea bahetu egiten dutela emozioek eta sentimenduek, eta haiek ere, beren aldetik, arrazoiaren bitartez modula daitezkeela. Burmuin emozionalak funtsezko papera betetzen du giza

espeziearen eboluzioan, eta emozioak beti daude presente bizitzan hartzen ditugun erabaki guztietan.

Mundu zientifikoan gero eta iritzi zabalduagoa da arrakasta profesionala, norberaren prestigioa, norberaren ongizatea eta, horrenbestez, osasuna ehuneko handi batean (%80tik gora?) daudela gaitasun emozionalen mende, eta %20an, asko jota, gaitasun tekniko eta arrazionalen mende.

Izan ere, enpresek gero eta gehiago eskatzen dituzte emozioen eta harremanen alorreko gaitasun jakin batzuk dituzten pertsonak.

GOLEMANEN GALDERA

Egitate horren aurrean, urte batzuk dira Daniel Golemanek bi galdera egin zituela: lehenbizikoa da, **adimen emozionala hain garrantzitsua baldin bada, zergatik eskaintzen zaio hain espazio urria hezkuntza sisteman?**; bigarren galdera zehatzagoa da: zergatik ez da emozioen ikasketa lantzen, esate baterako, ingeniariak ikasketetan?

Aitortu egin behar dut galdera hori egitea eta hari koherentziaz erantzuteko borondate politiko eta konpromiso irmoa izan dela motibo nagusia Gipuzkoako Aldundiak 2004ko ekainean hasiera eman ziezaion adimen emozionala sustatu eta garatzeko programa bati Gipuzkoako lurraldeko hezkuntza zentro guztietan, zuzendaritza taldeen eta irakasleen gaitasun emozionalak garatzeko helburuarekin, ondoren ikasgeletan aplikatuz jarraitzeko eta epe ertain-luzera ekimena beste gizarte esparru batzuetara zabaltzeko asmoz.

BESTELAKO MOTIBOAK

Baina ez zen hori izan gure ekimena inspiratu zuen motibo bakarra. Beste batzuk ere izan ziren.

Burmuinak barruan esploratu gabeko potentzial mugagabea gordetzen duela sinetsita egotea; sentimenduak, emozioak eta portaerak sortzen dituen fabrika handi bat bezalakoa da, eta giharrei bezala gertatzen zaio: erabiltzen ditugunean ongi sentitzen gara. Merezi du potentzial horren esplorazio sakon bat egitea.

Ezein izakik ezin dezake hegan egin hego bakarrez: burua eta bihotza, sentitzea eta pentsatzea, gaitasun teknikoak eta emozionalak dira hegan egiteko behar diren bi hegoak. Ongi hegan egiteko, ordea, orekatuta egon behar dute, eta gaur egun ez daude: emozioak ahaztuak izaten dira. Edozeinetara ere, **desoreka egotekotan, desiragarria izango litzateke gaitasun emozionalen aldekoa izatea**, beste hegoan ondorio oso baikorrak izaten dituelako.

Bete-bete gaudela jakintzaren ekonomian, eta egungo jakintzaren gizartean - pertsonen protagonismoa ezaugarri duena-, garrantzi berri bat hartzen dute adimen emozionalaren garapenak eta oreka emozionalak, batez ere eragina dutelako **pertsonen arteko komunikazioan, eta alderdi hori giltza da erakunde eta enpresa eraginkorragoak eta lehiakorragoak lortzeko, askoz gusturago dauden pertsonen osatuak.**

Jakintzaren gizartean balio etikoetan eta pertsonen emozioen kudeaketaren praxi adimentsu batean oinarritutako lidergoa praktikatzen duten erakunde eta enpresena da etorkizuna, pertsona horien rola alde batera utzita (zuzendaritzakoa, langilea, bezeroa, hornitzailea izan), helburua izanik bezeroak emozionalki inplikaturik egotea, langileak eta hornitzaileak emozionalki engaiatuta eta zuzendaritzakoek zerbitzu-bokazioa izatea. Horrela

sortu ahal izango dira eduki emozionala duten produktu eta zerbitzuak, erantzun emozionalki baikorrak eragiteko duten gaitasunagatik balioztatuak izango direnak.

KOHERENTZIA

Gipuzkoako Aldundian jakintzat ematen zen hezkuntza eta heziketa politikak ezagupenen sorrera eta transmisioaren zimenduak zirela eta gizarte ororen potentzial berritzailearen determinante funtsezkoak direla; ez alferrik, lagundu egiten baitute:

Pertsonen garapenean, beren potentzial osoa garatu eta bizitza osotasunean bizi dezaten.

Gizartearen garapenean, bereziki parte-hartzea bultzatuz, pertsonen eta taldeen arteko desberdintasunak murriztuz eta kultur aniztasuna sustatuz.

Ekonomiaren garapenean, beharrezkoa dena eginez giza gaitasunak eboluzio ekonomiko eta teknologikoaren parekoak izan daitezzen.

Izan ere, ez zen hau izan Gipuzkoako Aldundiak Hezkuntza Sistemari hartutako lehen ekimen berritzailea. Jada 1985ean, Aldundiak, garai hartan Diputatu Nagusi Imanol Murua zela, bulkada indartsua eman zion lan heziketari, eta gaur egun Gipuzkoako lan heziketak duen ospea ekimen hari zor zaio neurri handi batean.

Ondoren sendotasunez eman zaio babesa IKTen garapenari Gipuzkoako ikastetxeetan: hasieran elektronikoki lotuta egotea bultzatu zen, gerora finantzatzeko ikasgela digitalen ezarpena lurraldeko eskoletan, irakas materialaren lantzea IKTak aplikatuta, eta hartara irakaskuntza-ikasketa prozesu berriak eta irakasleen rol berria erraztuz.

Azken urteotan zenbait elkarlan-hitzarmen gauzatu dira Gipuzkoan dauden unibertsitate guztiekin ICTak ezartzeko eta berrikuntza pedagogikozko prozesuak garatzeko.

Jarduera horiek guztiak koherenteak izan dira euskal hezkuntza sistemarekin eta haren curriculum berriarekin, baita Europar Batasunaren aholkuekin ere.

Azkenik, lurraldean Adimen Emozionala garatzeko ekimen hau koherentea izan da eta aldi berean egin da beste zenbait jarduerarekin, hala nola bizitza osoko ikasketa (BOI) sustatzea, herritartasun aktiboa eta ekimenaren sena eta kultura ekintzaile eta berritzailea eskoletan garatzea, “ekinez ekiten ikastea” goiburuan, irakas material eta bitarteko berriak sortuz, hala nola “Kosmodisea” eta “Hasi eta Hazi”.

ADIMEN EMOZIONALA

Ondoko lerroetan labur-labur azaltzen dugu zer ulertu dugun Gipuzkoako Aldundian adimen emozionala, gaitasun eta trebezia emozionalak eta emozioen kudeaketa adimentsua sustatzen dugunean iritsi nahi diren helburuak aipatzen ditugunean.

- **Buru-kontzientzia.** Norberaren emozioez jabetzea, haiek identifikatzen jakitea, izena ematea. Haien kausak identifikatzea.
- **Emozioen Buru-erregulazioa.** Emozioen aurrean une oro geure burua erregulatzeko gaitasuna. Nola emozio baikorrek hala ezkorrek ondorio baikorrak edo ezkorrak sor ditzakete, emozioen buru-erregulazioaren arabera. Pertsona egokiarekin, une egokian eta indar egokiz erabilitako

haserreak ondorio baikorrak sor ditzake, gaizki erregulatutako pozak, edo gehiegizko euforiak ondorio ezkorrek sor ditzakeen bezala.

- **Autonomia emozionala.** Buru-estimua, norbere buruarengan konfiantza izatea, jarrera baikorra, buru-motibazioa.
- **Kontzientzia soziala eta enpatia.** Ahozko eta ez ahozko hizkuntzaren entzuketa aktiboa, entzuketa emozionala barne. Besteen emozioak identifikatzea, ulertzea. Nire jarrerak gainerako pertsonengan sortzen dituen emozioez jabetzea.
- **Gainerako pertsonak aintzat hartu eta errespetatzean, pertsona oso, bestelako eta libretzat jotzean oinarritutako harremanen kudeaketa.**

Jabetzen garenez gaitasun emozionalak eta adimen emozionala sozialki desiragarriak ez diren helburuetarako eta beste pertsona batzuk manipulatzeko erabil daitezkeela, **Gipuzkoako Aldundiaren helburu, programa eta adierazpen guztietan beti izan da kontuan adimen emozionala helburu etiko sozialki desiratuekin, azken batean ekarpenak eginez eboluzio sozial baterantz, gizarte ireki baterantz, konplexurik gabea, gatatzak konpontzeko gaitasun handikoa eta, elkartasun balioetatik abiatuta, gizarte eredu arrakastatsu bat sustatuko duena, kohesionatua eta pertsonen ongizatera bideratua, nola orainean hala etorkizunean.**

Adimen emozionala ez da kontu genetiko bat, ingurunearen eraginari dagokio, eta hori jaio aurretik ere garatzen da, bizitza osoan, eboluzioa mantsoa izan badaiteke ere. Pertsona guztiek jaio aurretik ere hautematen dituzte ingurunearen harreman emozionalak. Jaio ondoren, ezin konta ahalakoak dira gaitasun sozioemozionalak hartu eta garatzeko alorrak: familiaren eta gizartearen ingurunea, hezkuntza sistema etapa guztietan, kalea eta era guztietako elkarreak.

Azken urteotan aurrerapen handiak gertatu diren bezala ekologiarantz, ingurumen gaietan, beharrezkoa da ekologia emozionalaren gisako bat, emozioen lantze adimentsua, kudeatzea ahalbidetuko duten testuinguruak sortuko dituen sistema bat garatzea.

Ingurumen gaietan bezala, ondorio sozialak izugarrikoak izango lirateke, eta lantze horretan sartu nahi dutenen ondorio pertsonalak aski onak izango lirateke.

PROZESUA

Azaldutakoa kontuan hartuz, **2004ko ekainean susmo batekin, intuizio batekin sortu zen prozesua:** ongizatearen gizartearentzat gizarte berritzaile bat garatzeko bazegoen “adimen emozionala”, “emozioen kudeaketa adimentsua” kontzeptuen atzean garrantzizko zerbait, aztertzea merezi zuena.

2004ko ekainean **Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin partekatu genuen susmo hori** eta azterketari ekin genion, irailean Gipuzkoako ikastetxe eta heziketa elkarte guztietako zuzendaritzei deialdi bat eginez. 50 bat ikastetxe azaldu ziren. Azterketarekin jarraitzea merezi zuela ondorioztatu genuen, eta denok batera deialdia irakasle guztiei zabaltzea erabaki genuen.

Eta horixe egin genuen 2004ko urrian. 150 bat pertsona bertaratu ziren; oso esplizituki agertu ziren ekimenaren alde eta heziketa eskaintzan zehazteko eskatu ziguten Aldundiaren eskaintzaren aurrean.

Lehenbiziko heziketa eskaintza bat landu zen, azaroan eskaera bideratu genuen eta zehaztu ahal izan zen, bai abian jarri ere, **heziketa alorreko lehen ekintza-multzo bat, 2005eko urtarrilaren 13an, Bilbo, Madril eta Bartzelonatik etorritako 3 irakaslerekin, 2 gizonezko eta emakumezko bat, 180 pertsona matrikulatuta zeuzkaten 11 ikastaro programatuz.**

EZAUGARRIAK

Ekimen honen ezaugarrietako bat izan da, eta oraindik ere bada, **esperimentazio eta ikasketa prozesu bat dela: “eginez ikasi”** da haren goiburua. Zergatia eta zertarakoa garrantzitsuak dira, baina egingarriak izateko nolakoa behar dute. Alegia, gobernantzari lotutako jardun-printzipio batzuk. Zehatzago:

Parte-hartzea, herritarren inplikazio zabala garatuz prozesuaren fase guztiguztietan, sorreratik hasi eta politiken aplikazioraino.

Berrikuntza -helburuetan, ekintzen diseinuan eta garatu beharreko lan metodologietan- eta esperimentazioa, jardueren sorrera eta garapenerako oinarriak diren aldetik; hau da, ikasketa iturriak.

Bigarrenez, **lankidetzaren publiko-pribatu eta erakundearen artekoa**: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin, Aldundiko bertako beste esparru batzuekin (Kirolak, Gazteria, Gizarte Zerbitzuak), Udalekin, eskola publiko zein pribatuekin, elkarte publikoekin, pribatuekin; azken batean, erakundearen arteko zabaltasun eta koordinazioa, Autonomi Elkarteko politika eta ekimenak elkarren osagarri izan daitezkeen moduan.

Lankidetzaren, batik bat alor pribatu eta publikoarekin, ekintzen garapenean konpromiso maila handiagoak planteatutako helburuei dagokienez gizartearen eragin handiagoa lortzearen.

Hirugarrenez, **ebaluazioa**, erabakiak hartzean hobetu, baliabideen erabilpena optimizatu eta erantzukizun soziala sendotzea ahalbidetzen duen bide nagusia den aldetik; programen eta emaitzen ebaluazio jarraitu bat, zenbait unibertsitatearen lankidetzaren adituari esker, bereziki Euskal Herriko

Unibertsitatearena (EHU). Programak berak, haien hobekuntzari begira, ebaluatzeaz gain, abiapuntua neurtzen ari dira etorkizuneko une desberdinetan eta zirkunstantzia desberdinetan neurtu ahal izateko programaren betetze maila eta perspektiba desberdinetatik eragina neurtu ahal izateko.

Laugarrenez, **ekimenak barne hartzen ditu laguntzazko eta hedapen eta barreiatze sozialezko neurriak**. Elkarlanean antolatu dira nazioarteko jardunaldiak Ezagutzaren Klusterrarekin, beste batzuk esperientziak trukatzeko, eta jardunaldi espezifikoak, hala nola 2008ko urriaren 15ekoa, zeinean Daniel Goleman, Roger Weissberg eta Linda Lantieri-ren presentzia izan baitzen, besteak beste, planteamendua hasieratik izanda sozializaziora irekia, ezagupenak eta esperientziak gizarte osoarekin partekatzerara irekia; gainera, foro zein ekimen ugarian ari gara parte hartzen.

Bosgarrenez, **bat dator Europar Batasunaren aholku eta arauekin eta gizon-emakumeen arteko egiazko berdintasunarekin**.

Seigarrenez, **proporzionaltasuna, subsidiarotasuna eta irisgarritasuna tokiko edo eskualde alorreko esperientzietan**, ikasketa eta kontraste bidea den aldetik jarduera politika berriak definitu eta garatzeko eta helburu bera partekatzen duten erakundeen konpromisoa eta parte-hartzea handitzeko.

Zazpigarrenez, pertsonalizazioa (IKTak) eta pertsonen erantzunkidetasuna (protagonismoa eta konpromisoa) sustatuko duten **kudeaketa-lanabesen integrazioa** (ikasketa kontua).

Azkenik, ekimen honen beste ezaugarri bat izan beharko luke **integrala izatea, baina -eta uste dut hori dela bere ezaugarri nagusia- lurralde alorreko estrategia baten barruan**. Hau da, gizarte osoa barne hartu nahi izan da gaitasun sozio-emozionalak bereganatzeko esparru desberdinen barruan, eta horretarako definitu dira biztanleriaren segmentu bakoitzari eta garapen pertsonal, profesional eta sozialaren faseari egokitutako jardun-ildoak;

hezkuntza esparruan hasten bada ere, barne hartzen ditu pertsona guztien biziaren garatzen den esparru guztiak: jaio aurretikoa, hezkuntza sistema, familiaren esparrua, sozio-komunitarioa eta erakunde-enpresari dagokiona.

Hemendik aurrera ibilaldi bat egingo dut fase horietako bakoitzean barrena.

Haurdunaldia

Alde ederra dago izaki berriaren bizitzan Begoña Ibarrolak **“Musika, jaio aurretik”** bere liburuan proposatzen duenaren arabera bizitzearen eta ez bizitzearen artean. Hona liburutik ateratako zenbait esaldi:

- “Izaki berriak umontzi-itsasoan barrena egindako zeharkaldia da haren lehen ikasketa gunea, aukera bat garapen harmoniatsu integral emozionalki orekatu bati hasiera emateko”.
- “Haurdunaldian sortzen dira aitarekiko eta amarekiko lehen lotura afektiboak”.
- “Ingurunearen harmoniaren garrantzia, emozio baikorrek eta ezkorrek eragina baitute harengan, eta soinuaren estimuluen, amaren eta aitaren ahotsaren eta musikaren funtzioa.”.
- “Amak eta aitak zenbat eta gehiago hitz egin haurrarekin eta zenbat eta musika lasai gehiago izan inguruan, orduan eta hobeto”.
- “Garrantzitsua da izaki berria jaiotzen denean aditzen duen lehenengo gauza amaren ahotsa, aitaren ahotsa eta haurdunaldian aditutako musika izatea”.

Bizitzaren lehen hilabeteetatik hezkuntza sistema iristen den arte, pertsona berriaren garapena harmoniatsua izan dadin funtsezkoa da inguratzen duen giro emozionala, oreka emozionala, haren harremanak, ez bakarrik amarekin eta aitarekin, baita familia ingurunearekin (anai-arrebak, aitona-amonak, lehengusuak, e.a.) eta gurasoen adiskideekin ere.

Hezkuntza sistema

Hezkuntza sisteman sartuta, garrantzitsua da hezkuntza etapa guztietan denbora ematea gaitasun emozionalak lantzen, Golemanek iradokitzen duen bezala.

Alde ederra dago, nire iritziz, Tolosako Laskorain edo Hirukide, eta Gipuzkoako zenbait ikastetxe gehiagotan planteatzen ari diren bezala ikaslea hartu eta tratatzen duten ikastetxetan eta hori egiten ez dutenen artean! Eskola horiek **eskola jardueren erdigunean kokatzen dituzte neska-mutilak, pertsona integral moduan tratatzen dituzte eta haiengandik ikasten duten irakasleak dauzkate.**

Ikastetxe guztiek gaitasun emozional eta harremani dagozkien guztiak etapa guztietan landuko balituzte, nekez ulertuko litzateke etapaz edo ikastetxez aldatzean harremanen inguruko ohitura jakin batzuek jarraitasunik ez duten egoerak gertatzea.

lido horretan, eta **hezkuntza sistemari begira, hezkuntza komunitate osoa hartzen duen planteamendu integral bat diseinatu eta garatu da**, eta bertatik zerbitzu ematen zaio ikastetxe bakoitzari banaka-banaka edo beste ikastetxe batzuekin era partekatuan.

Hezkuntza sisteman **eskaintza oso malgua da, eskariaren gertutasunetik planteatua** (lekuari, egutegiari, ordutegiei dagokienez), zuzendaritza taldeei eta irakasleei zuzendua, hasiera-hasieratik ikasleengana iristeko asmo garbiarekin, **heziketa berezia dago hezkuntza etapa bakoitzarentzat** eta maila desberdinetan, eta barne hartzen du arazoak konpontzen lagunduko duten pertsonen prestakuntza eta gaikuntza hezkuntza sistemaren beraren barruan. **Borondatezkotasuna eta konbentzimendua funtsezkoak dira programan parte hartzeko orduan.**

Familiaren esparrua

Alabaina, hezkuntza sistemaren eragina pertsonaren garapenean ez da %15era edo %30era iristen, hezkuntza etapa bakoitzaren arabera. Neska-mutilek gutxienez bospasei ordu ematen dituzte ikastetxeetan, baina bi halako pasatzen dituzte familiaren esparruan. Beraz, **ezin dute edo ez lukete entzun -eta are gutxiago ikusi- beren etxean hezkuntzaren esparruan ikasten dutenarekin kontraesanean dauden praktikak, hezkuntza emozionalari dagokionez.**

Hortxe datza familietan heziketak, gaitasun emozionalen lantzeak eta ikasteak duten garrantzia, eta horrekin batera **beharrezko koherentzia eta koordinazioa egotea eskolan ikasten dutenen eta etxean bizi direnen artean, eta alderantziz.**

Familiaren esparruan horrela jarduteak eta hezkuntzaren alorrekoarekin koordinatzeak eragin biderkari oso garrantzitsua sortzen du, eta balio erantsi handia ekartzen dio gurasoen eta haien seme-alaben arteko komunikazioari, komunikazio horrek hobekuntzarako aukera handiak eskaintzen baititu, eta batzuetan arazo larriak izaten dira hartan.

Hala, ekimenarekin inplikazio eta konpromiso garrantzitsua zuten heziketa zentroak (zuzendaritza taldea eta irakasle gehienak prestatuak) identifikatu genituenean planteamendu zehatz bati ekin genion, ikastetxe haietako familiei bakarrik zuzendua.

Jardueraren hasiera informazio eta sentiberatze hitzaldi batzuk izan ziren, ikastetxeak berak eta Aldundia ere harritu egin gintuen harrera izan zutenak.

Horren lekuko da **familiak egindako prestakuntza eskari handia, aurreikuspen guztiak gainditu dituen, nola Aldundiarenak hala ikastetxeenak**, baita familien beraien inplikazioa ere: 2009ko erdialdean **zenbait pertsona, aitak eta amak, elkarlanean ari dira eta beste guraso batzuei prestakuntza ematen, koordinatuta eta ikastetxeen laguntzaz**, adimen emozionalean prestakuntza intentsiboa hartu eta gero.

Esparru sozio-komunitarioa

Hala ere, nahiz eta neska-mutilak beren denboraren parte handi bat hezkuntza eta familia esparruan eman, sei eta zortzi ordu artean geratzen zaizkio kalean egoteko, bere harreman sozialak lantzeko. **Izugarrizko garrantzia daukate harremanen munduak eta harreman sozio-komunitarioek**, kalean geratzen direnak aipatu bi esparruetatik kanpo, **gazteriaren heldutasunerako eta oreka pertsonal eta emozionalerako**.

Esparru sozio-komunitarioari dagokionez, arreta, oraingoz, esparru oso zehatzetan **zentratu** da, hala nola gazteria, kirolak eta gizarte politika alorretan, udal zehatzetan eta betiere alor horietan ezagutza aditua duten beste pertsona batzuen eskutik, koordinatuta erakunde kudeatzaileekin edota esparru horietan eskuduntzak dituztenekin, hala nola Aldundiko bertako eta Udaletako gizarte politika, gazteria eta kirolen Departamentuekin.

Erakunde-enpresa esparrua

Bere lehen urteak, bere heziketa bukatu arte, oreka emozionalean bizi dituen eta bere gaitasun emozional guztiak lantzen dituen pertsona bat, pertsona erdian -izaki integral gisa, ez bitarteko edo “giza baliabide” gisakokatzen duen eta helburutzat bere profesionalen garapen integrala duen erakunde batean sartzen denean, aldeko giroa sortzen da, konfiantzazkoa, pertsona horrek emozioen eta harremanen alorreko bere gaitasun guztiak jartzen ditu jokoan eta sortzaileagoa eta berritzaileagoa izaten da. Horrek guztiak ekartzen du pertsona hori oso pozik egotea, bere burua gauzatu sentitzea, eta erakundea lehiakorragoa eta erakargarriagoa izatea. Gizartea berritzailea da eta aberastasuna eta ongizatea sortzen du. **Horixe da arazoaren muina % 100eko berrikuntza gerta dadin.**

Ikuspegi horretatik garatu da benetako esperimentazioa lau industri enpresatan, baita Aldundiko Berrikuntza Departamentua eta EHU Unibertsitatea aitzindari dituen ikerketa bat ere, 20 enpresatako -%70 pyme, erdia industria alorrekoak, beste erdia zerbitzuetakoak- 350 pertsonatik gora inplikatu dituen; horien emaitzak aurrerago aipatuko dira, eta 2010etik aurrera Gipuzkoako enpresa alorrean esku-hartze ireki baten abiapuntua izango dira.

EMAITZAK

2009ko erdialdean, jatorrizko ideiatik ia bost urte pasatu zirenean, nagusia da poza programaren eremu desberdinetan parte hartu dutenengan, eta ebaluazioetatik lortutako emaitzak oso baikorrak.

Programan inplikatu dira, maila desberdinetan, **irakasleen %15etik gora eta ikastetxeen %32tik gora**, eta familiei emandako prestakuntza Ikastetxeko Planean sartu da. Irakasleen artean, **50 pertsona -bide egile aditu- prestatu dira** ikasleekin eskolan eta familiekin elkar eragiteko.

Mundu alorrean aitzindariak izan diren esperientzia eta aurkikuntza metodologikoak ezagutzeko aukera izan dugu, hala nola CASELena, Illinoiseko Unibertsitatearena, Chicagon, haren Presidente Roger Weissbergen jarrera irekiari esker. Esperientzia hori baliagarria izan zaigu Ikastetxe Planetan aplikatu nahi den hobekuntza metodologiko garrantzitsu bati begira.

Eskolek beraiek garatu dituzte irakas materialak, adituen laguntzarekin. Gaur egun eskura ditugu irakas materialak, euskaraz eta espainieraz, 3 urtetik 18 urte arte, espezifikoak eta adin bakoitzari

moldatuak: 3 eta 4 urte, 5 urte, 6 eta 8 artean, 10 eta 12 artean, 12 eta 14 artean, 14 eta 16 artean, 16 eta 18 artean.

Esparru sozio-komunitarioan dagoeneko hasi da jarduera, eta Aldundiko bertako eta Urnieta eta Andoaingo Udaletako gizarte politika, gazteria eta kirol alorrak inplikatu dira.

Lau enpresatan aurrera eramandako esperimentazio erreala ez ezik, azpimarratu beharrekoa da **“sentitu berritzeko”** izen pean garatu den jarduera; bertan, Gipuzkoako nagusien eta 20 enpresaren parte hartzea medio, egiaztatu egin da zer erlazio dagoen gaitasun sozio-emozionalak hezurramitzen diren eta berrikuntza sustatzearen alde dauden erakunde-kulturen eta enpresen lehiakortasunaren artean. Honako ondorio hauetara iritsi dira:

- Beharrezkoa da berrikuntzaren kultura indartzea, eta horretarako enpresa proiektu partekatu bat behar da.
- Beharrezkoak dira gaitasun eta trebezia berriak, eta horien artean funtsezkoak dira gaitasun sozio-emozionalak.
- Adimen emozionala hobeto garatzen da kontrol gutxiko kulturetan eta lidergo mota jakin batzuetan.
- Korrelazio positiboa dago gaitasun sozioemozionalen eta berrikuntzaren sistematizazioaren, hazkundera eta etekinen, emaitza ekonomikoen, arriskuak hartzen dituen kulturaren eta portaera kooperatiboen artean.

2008an egindako lanaren ondorioetan oinarrituta, **2009an esku-hartze errealak gertatuko dira Gipuzkoako berrogeita hamar bat enpresatan**, eta gaitasun emozionaletan ezagutza handiak eta enpresa kudeaketan aldaketa berritzaileen prozesuetan esperientzia zabala duten hamabost bat pertsona eta erakunde aurrez homologatu arduratuko dira

enpresa kudeaketaz. Esku-hartzeak **kudeaketa emozionalezko plus garrantzitsu bat** izan behar du.

2009 amaitu baino lehen definituta egongo dira aholkularitzazko homologazio irizpideak, esku-hartzearen kalitatea bermatzen duten prestakuntza eta aholkularitza homologazioa gauzatu ondoren **2010ean Gipuzkoako enpresa eta erakunde guztiei zabaldutako esku-hartze plan bat abian jarri ahal izateko.**

Lehen prestakuntza-ekintza esperimental bat egin da Gipuzkoako parlamentuan, Batzar Nagusietan: ia talde guztietako batzarkideek parte hartu dute hartan.

Aldundiko Berrikuntza Departamentuko langileen %95ek Adimen Emozionalaren inguruko ikastaro bat egin du.

Aurki abiaraziko da **lehen prestakuntza-ekintza bat xehekako merkataritzan**, salmenta prozesuetan emozioen kudeaketak duen garrantzia azpimarratu nahian.

2008ko azaroan **Gipuzkoako Aldundiak Begoña Ibarrolaren “Musika, jaio aurretik”** liburuaren bigarren argitalpena kaleratu du Gipuzkoan **dohainik banatzeko**, batez ere emakume haurdunak artatzen dituzten **persona zein erakundeen artean**. 2009ko erdialdean argitalpenaren %50 banatuta dago.

2008ko urrian **Donostian Daniel Goleman eta Roger Weissbergekin jardunaldi bat partekatze**ko aukera izan genuen. Jardunaldia bukatzean haxe izan zen **Daniel Golemanen iritzia:**

“Oso hunkituta nago, uste dudalako lurralde hau mundu alorreko liderra dela emozionalki adimentsua den gizarte bat sortzeko bere

jardunean. Ez dut ezagutzen mundu osoan hain berritzaile eta handinahia den beste lekurik”.

Harrez geroztik, Gipuzkoaren esperientziak aipamen berezia merezi izan du: **Daniel Golemanen bere blogean hilero idazten duen artikulua bat argitaratu da horren inguruan, eta erreferentzia berezia izan da orobat Roger Weissbergekin idatzitako beste artikulua batean.**

Oraindik orain, 2008ko urrian, **Fundación Botín-en azterlan bat** argitaratu da, mundu mailan egiten den lehen azterlana, eta bertan parte hartu dute AEB, Erresuma Batu, Suedia, Herbehereak, Alemania eta Espainiako adituek. Azterlanak ikertu dituen azpi-laginetako bat Gipuzkoarena da. Azterlana ikerketa zientifikoan oinarritzen zen, eta haren ondorioa biribila da:

“Eskolan adimen emozional eta sozialeko programen garapen sistematikoak onura ukaezinak sortzen ditu mundu osoko haur eta gazteengan. Zehazki, oihartzun baikorra du haien ongizate emozionalean, haien harreman sozialetan; haien errendimendu akademikoa hobetzen du eta haien garapenean sor litezkeen arazoak prebenitzen dituen faktorea da. Azken batean, ongizatea eta garapen integrala sustatzen du haurrengan eta gazterian”.



LORPENAK

2004ko “susmo” eta “intuizio” haiek **ageriko premia bihurtu dira eta eskaria sortu da**. Izan ere, 2004an **premia sor zegoen, latente, eta eskari esplizitu bihurtu dugu, eta eskari horri erantzuten dion prozesu integral bat garatu dugu**.

Gero eta gehiago hitz egiten da emozioez eta emozioen kudeaketa adimentsuak berrikuntza bultzatzeko testuinguru egokiak sortzeko orduan duen garrantziaz.

Gipuzkoan garatutako esperimentazio-prestakuntza prozesuaren bidez **pertsona “maitemindu” ugari sortzen ari dira, balio sozial handiko prozesu baten aurrean gaudela sinetsita daudenak**.

Frogatuta dago gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazioa aberasten duela, eta uste osoa dago indarkeria mota guztietarako antidoto on baten aurrean gaudela.

GILTZAK ETA IKASITAKO LEZIOAK

Ekimen honen arrakastaren giltzetako bat **jardueraren intentsitatea** izan da. Prozesuaren zenbait unetan, besteak beste 2004an ikastetxeetako zuzendaritzei eginiko aurkezpenaren unean, esan izan zaigu ekimen honek nahi duena aspalditxotik egiten ari zela. Baina ondoren galdetu dugunean zergatik dagoen horren eskari handia, aitortu izan zaigu giltzetako bat **jardueraren intentsitatea** izan dela, hurbiltasunetik eskariraino, ahaleginak xuhurtu gabe, ez ekonomikoak ez giza alorrekoak.

Bigarren giltza bat **eskaintzaren kalitatearen** bermean egon da, horretarako hasieran Madrilan, Bartzelonan eta Bilbon bizi ziren

profesionalengana jo behar izan bazen ere. Eskaintzaren kalitatea, berriz, eta geroari begira, oso gogoan izan beharko ditugun giltzetako bat izango da adimen emozionalaren hedapena gainerako esparruetara zabaltzeko orduan: familiarenera, sozio-komunitariora eta erakunde-enpresa alorrekoa.

Hirugarrenez, oso garrantzitsua izan da **beste eragile publiko zein pribatuen inplikazioa**: haien konpliziterik gabe ezinezkoa izango zatekeen garatu den prozesua. Adibide gisa, IKASLANen inplikaziorik gabe ezin izango zatekeen garatu kudeaketa administratibozko prozesu beharrezkoa, eta Tolosako Hirukide eta Laskorain ikastetxeetako irakasleen inplikaziorik gabe ezinezkoa izango zatekeen ikasleengana iristeko irakasleen eskura jartzen diren irakas material oso praktikoen eta lanabesen garapena. Garatu diren kudeaketa alorreko dinamikak pertsonalizazioan eta irisgarritasunean oinarritu dira. Ildo horretan, azpimarratzekoa da “ikasketarako kontu pertsonalizatuak”¹ izeneko artikulazioa; horrek ahalbidetu egin du, alde batetik, parte hartu duten pertsona guztien konpromiso banakoa, eta bestetik kudeaketa arin bat. Gainera, funtsezkoa izan da fasez fase egindako planteamendua (diseinua, esperimentazioa, prestakuntza, orokortzea), horrek esan nahi baitu une honetan “Prestakuntza Zentroko Plana” izeneko diseinu eta artikulazioa (eskolek beren ikastetxeko prestakuntza emozional eta sozialaren garapen integralarekiko duten konpromisoan sakontzea: esku-hartze programak ikasleekin, gaitasun emozionalak ikastetxean zeharka ezartzea...) CASELek proposatutakoaren ildotik doala.

Laugarren giltza bat **eskarira orientatzea izan da, eskariarekiko hurbiltasuna**, ikuspegi horretatik planteatu baitziren lehen prestakuntza ekintzak eta ondokoak. Ekintza horiek lurraldeko hiriburuan antolatu beharrean, nahi zutenak edo ahal zutenak bertara zitezten, aztertu egin

¹ [CEDEFOP](#) delakoak mundu alorreko praktika ontzat jo du Gipuzkoa horri dagokionez.

da non sortzen den eskaria eta nahi ziren data eta ordutegiak, eta eskari hori aztertu ondoren prestakuntza ekintzak ikastetxean bertan antolatu dira nahikoa masa kritiko zegoenean, edo ikastetxe bakoitzetik hurbil, bata bestetik hurbil dauden zenbait ikastetxeren eskaria konbinatuta.

Bosgarren gakoa da **ekimenak atxikimendua sortzen duela**, onuragarria da norberarentzat, eta onura horiek biziaren esparru guztietan aplika daitezke. Zer esanik ez lehen prestakuntza-ekintzak pertsonarengan zentratzen direnean pertsona den aldetik, eta ez erakundeetan betetzen duen funtzioa kontuan hartuta (zuzendaritzakoa, irakaslea...). Bada zenbait alditan aipatu izan dugun pasadizo bat, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Departamentuko goi kargu baten ingurukoa, halako batean galdetu baitzigun: “Zer egin diozue nire emazteari?” (institutu bateko irakaslea zen eta gure programan parte hartu zuen). “Zergatik diozu?”, galdetu genion. “Aldatu egin didazue-eta”, erantzun zuen hark. “Onerako edo txarrerako?”. “Onerako zalantzarik gabe, jarraitu horrela programarekin”. Hau da, **programak eragin onuragarriak sortzen ditu pertsona inplikatuaren harreman-esparru guztietan**.

Ikasitako lezio moduan, uste dugu ez dela nahikoa ekimen bakanak planteatzea. Beharrezkoa da era global batean eragitea pertsonarengan, hezkuntza sisteman eta famili ingurunean, erakunde eta enpreetan eta gizartean, oro har. Azken batean, **lurralde alorreko estrategia bat behar da**.

Beste giltzetako batek zerikusia du Gregorio Marañonengandik ikasitako lezio batekin. Halako batean galdetu zioten ea zein zen mediku baten lanabes onena, eta doktore ospetsuak erantzun: **“Aulkia, gaixoaren altueran esertzeko eta hari entzuteko”**. **Entzuketa aktiboa** da gizarte emozionalki adimentsu bat garatzeko gakoetako bat; entzuketa aktibo horrek barne hartu behar ditu ahozko eta ez ahozko hizkuntza, baita

hizkuntza emozionala ere. Hots, hizketan ari garen norbaitek arrotza egiten zaigun ideia bat adierazten duenean, besterik gabe deskalifikatu beharrean geure buruari galdetu beharko genioke: “Zergatik esan ote du hori?, zein ote da motiboa?, zer emozio edo sentimendu eragiten du halako baieztapen batek?”. “Aulkiz” beteriko Gipuzkoa bat aurrerapen sozial garrantzitsu baten seinalea izango litzateke. Ez alferrik, ekimen honen ibilbidea “aulkiz beteriko” entzuketa eta prestakuntza prozesu batean oinarritu da: eskolak ikusi ditugu, haien bizipenak partekatu ditugu, ordu asko eman ditugu ikastetxe elkarteekin bilduta, gurasoen bileretara joan izan gara, emaginekin egon gara, Chicagora joan gara ikastera...

Eta amaitzeko, epe luzeko, 2120ra begira, amets bultzatzaile bat planteatu dugu: Gipuzkoako herritar guztiak oreka emozionalean bizi izatea beren bizi-zikloko une guztietan, haurdunalditik heriotza arte; haurdunaldi adimentsua, famili bizitza orekatua, hezkuntza sisteman, esparru sozio-komunitarioan, erakunde-entresen esparruan eta lanbide osteko zikloan edo jakituriaren aroan. Gizartea errotik bestelakoa izango litzateke, egungoa baino askoz hobea eta askoz aurreratuagoa egungo gizartean hain presente dagoen edozein motatako indarkeria era adimentsuan kudeatzeko: indarkeria terrorista, noski, genero indarkeria, bullying delakoa, irakasleenganako jazarpena eta gaur egun ohituraz praktikatzen dugun ahozko indarkeria guztia.

KONPROMISOAK GERORA BEGIRA

1. Gipuzkoako Aldundia **konprometituta dago adimen emozionala biziki garatzearekin Gipuzkoako hezkuntza sisteman**, betiere bermatuta beharrezko eskaintzaren kalitatea, familien prestakuntza barne hartuta eta ikastetxeetatik koordinatua, baita Ikastetxeko Plan Integratzaile baten beharrezko garapen metodologikoarekin ere.

2. **2012rako helburua** programan sartutako ikastetxeetako %50ek Ikastetxe Plan Integratzaile bat izatea da.
3. Konpromisoa **Adimen Emozionalaren garapen progresiboarekin esparru sozio-komunitarioan.**
4. Konpromisoa **“Musika, jaio aurretik”** liburuaren **hedapenaren kudeaketa aktiboarekin** sektore profesional zabaletan eta gizartean oro har.
5. Konpromisoa 2009an prestatu eta homologatzeko **2010etik aurrera Gipuzkoako enpresa guztietan adimen emozionalaren inguruko gaiak jorratuko dituen esku-hartze irekia eskaintzeko beharrezko kalitatea** duen eskaintza.
6. Konpromisoa **I+G+B**ekin, beste eragile batzuekin elkarlanean esploratzeko berrikuntzarako aukerak **“Pertsonak / Emozioak”, “Berrikuntza”** edota **“Emogaitasuna”** trinomotik ateratako **“Emozioak / Berrikuntza”** binomioaren inguruan.
7. Konpromisoa familia, hezkuntza sistema eta gizartea emaitza akademikoekin, osasuna eta ongizatearekin, harreman sozial onekin, bizitza osoko ikasketarekin eta herritartasun aktiboarekin integratzen dituen **Prestakuntza Emozional eta sozialarekin.**
8. Konpromisoa **prozesuaren, emaitzen eta gizartean izandako eraginaren ebaluazio etengabearekin.**
9. Konpromisoa **Gipuzkoa emozionalarekin; lurralde emozionalki adimentsu hau ez dugu gogoko izan behar bertan bizitzeko soilik, seduzitu ere egin behar gaitu.**

ESPERIENTZIAK ETA EZAGUPENAK PARTEKATZEA

Proiektua behar bezala kudeatzeko hilabete batzuk behar baditugu ere, sustatu nahi dugu **Sare Sozial bat Adimen Emozionalaren alorrean eta mundu osoan zehar esperientziak eta ezagupen praktikoak trukatzeko.**

Sareari gure esperientzia, prestakuntza eta ezagupen guztiak **eskainiko dizkiogu**. Era dinamikoan hobetu daitezkeen **irakas material guztiak**. Sarean existitzen den guztia eta hobekuntzarako dinamikak parteka daitezen nahi dugu.

Dinamika berri hau partekatu eta garatu nahi dugu **lehenik eta behin Gipuzkoan**, bertako hezkuntza komunitateak nahiko frogatuta daukalako konpromisorako bere gaitasuna gai honetan. Behar den bezalako moduan kudeatzeko egoeran egongo gara **2009ko irailean**.

Ondoren sarean partekatzearen konpromisoa **Euskal Autonomi Erkidego osora** zabalduko dugu, **urritik** aurrera, sarearen kudeaketa sistema behar bezala kontrastatu ondoren. Uste dugu **2010eko urtarriletik aurrera sarea mundu osora zabaltzeko egoeran egongo garela**.

ESKER ONAK

Amaitzeko, esker ona adierazi nahi diot oraindik bizirik dagoen esperimentazio-prestakuntzazko prozesu hau garatzeko orduan ezinbesteko elkarlana eskaini dituzten pertsonen multzoari.

Lehenengo eta behin, esker ona adierazi nahi diet prozesu honetan aktoreak izan diren lehen hiru pertsona adituei: **José Antonio González, Begoña Ibarrola** eta **Rafael Bisquerra**; haien jardun zorrotza 2005eko lehen hilabeteetan izan zen “ahotik belarrira” oso eraginkor eta erakargarri baten sortzailea.

Richard Boyatzisi: Donostiako 2005eko Nazioarteko Gastronomia Kongresua erakargarri emozional erabakigarria izan zen aurrez aurre zenbait orduz partekatu ahal izateko Boyatzis jaunarekin eta itzal handiko lidergo emozionalaren inguruko haren teoriak hizketan. Richard Boyatzisek eman zigun Roger Weissbergen berri, prozesu honetan asko irakatsi digun beste pertsona bat bera.

Roger Weissbergi, Illinoisko Unibertsitatekoa, Chicagon, eta CASELen presidentea, benetako jakintsua bera, alegia, gizatasun handikoa. Erdiz erdi ireki zizkigun bere erakundearen ateak, eta harekin esperientziak eta ezagupenak trukatzeko aukera izan genuen Chicagon bisita egin genionean eta gero hura Donostiara etorri zenean.

Salovey, Mayer, Howard Gardner, Antonio Damasio eta besteei, emozioen, adimen mota desberdinen, neurozientzien eta burmuinaren inguruan egin dituzten ikerketa eta ondorioengatik.

Daniel Golemani, egin dituen ikerketengatik eta adimen emozionala hedatzeko egin duen lan eskergarengatik. Funtsean gure prozesuak harengan aurkitu du inspirazioa, eta zehazkiago haren galderan, eta era berezian estimatzen diogu garatzen ari garen prozesuaren berri ikasteko arestian egin digun bisitaldia. Gipuzkoako prozesuaren inguruko haren iritzia eta gerora egindako aipamenak akuilagarri handiak izan dira hura bultzatzen ari den taldearentzat.

Unibertsitate esparruari, oso bereziki **Euskal Herriko Unibertsitateari**, lankide aditua izan baita prozesuaren zenbait unetan programa guztiak eta haien emaitzak aztertzeko orduan, baita **Deustu, Malaga eta Bartzelonako Unibertsitateei ere**, prozesuan eman duten laguntzagatik

Iñaki Ibarra, Angel Irastorza, Joseba Amondarain eta Nagore Manzanori, denak Gipuzkoako Aldundiko Berrikuntza Departamentukoak, haien jarrera emankor, erabateko eta sortzaileak egin baitu posible prozesuaren garapena.

Ikaslan, Hirukide, Laskorain eta erakunde eta pertsona askoz gehiagori, haien ilusio, gogo bizi eta grinagatik.

(BIDEOA)

Eta zuei guztioi, zuen denbora eta arreta emateagatik, niri entzun edo irakurtzeagatik, ez baitut pulpitutik aritu nahi dakidan gauza bakarra ia ezer ez dakidala den gai baten inguruan; soil-soilik nire esperientziaren ekarpena egin nahi dut grinatsuki sinesten dudana kausa batean, mundu guztiarekin partekatzea espero dudana.

